

## PRENTSA OHARRA

### “Cómeme Label Night” Guggenheim Bilbao Museoko apirilaren 10eko Art After Dark saioan

Art After Dark saio berezi-berezia egingo da apirilaren 10ean Guggenheim Bilbao Museoa: “Cómeme Label Night” biraren emanaldi bat hartuko du Atrioak. Christian S-k, Lena Willikens-ek eta Matías Aguayo-k bertaraten diren ehunka pertsonak dantzan jarriko dituzte. Bira New Yorken hasi zuten eta AEBtik eta Mexikotik ibili dira Bilbora heldu aurretik.

**DJ Matías Aguayo**, 00:00etik aurrera ipiniko du musika. Alemanian hezitako txiletarra da, bertan errefuxiatu baitzen haren familia diktaduratik ihes egitean. Aurretik arte eszenikoetan egin du lan, antzezle eta zuzendari moduan: filosofo bat da, karismatikoa eta konprometitua. Ahotsa musikarako oinarritzko tresnatzat jo du beti, eta haren gaitasunaz baliatzen da hainbat soinu egiteko eta makinaren hotsekin uztartzeko; zuzeneko saioetan bat-batekotasuna da nagusi eta narrazio bereziak sortzen ditu. Mundu osoko *outsiders* direlakoak, libre-pentsalariak eta inongo genero zein eskolari atxikitzen zaien sortzaileak erakartzen ditu.

23:00etan, **Lena Willikens**-ek, Koloniako artista, DJ eta ekoizlea haren eklettizismoa eta teknika bikaina erakutsiko du. Düsseldorfeko Salon Des Amateurs aretoaren DJ egoiliarra da eta Cómeme irratia ohiko kolaboratzailea; hilero *podcast* bat argitaratzen du. Dantzarako musikaren muga ilunak aztertzen ditu, eta *techno synth* eta *dirty house* doinuak Afrikako eta Asiako arte giroko azterketaren emaitzekin uztartzen ditu. Aipatutako irratian, Tim Sweeney-ren *Beats In Space* irratsaioan eta Europako areto ezagunenetan lan egiten du, hala nola Berlingo Panoramabar-en eta Bartzelonako Nitsa Club-en. Kolonian, Tel Aviven, Mexikon, Tromsøen (Norvegian), New Yorken, Bruselan eta Parisen ere izan da.

Gauari hasiera emango dio **Christian S**-k. DJ bikaina da: ondo baino hobeto ezagutzen ditu dantzarako pistak eta entzuleak etengabe mugiarazten ditu *house* soinu hipnotiko, ilun eta inprobisatuen bidez. Baxuak nagusi dira, Cómeme etxerako egindako abestietan moduan: “Jagos”, “The Power of Now” eta orain gutxi kaleratutako “Pitch Rider”.

Aquellos que se acerquen al Museo Guggenheim Bilbao la noche del 10 de abril entre las **22:00 h y la 01:00** de la madrugada podrán realizar una visita nocturna a la exposición *Niki de Saint Phalle* y a la videoinstalación *Las rutas del hilo*, de la artista coreana Kimsooja, además de a la presentación de *El arte de este siglo*.

Apirilaren 10eko gauean, **10:00etatik 01:00era**, Guggenheim Bilbao Museora bertaraten direnek *Niki de Saint Phalle* erakusketaz, Kimsooja artista korearraren *Hariaren ibilbideak* bideoinstalazioaz eta *Gure garaiko artea* erakusketaz aukera izango dute.

**Sarrera (18 urtetik gorakoak): 13 € publiko orokorra eta 9 € Museoaren Lagunak. Ikusle kopuru mugatua. Salgai txarteldegian eta [www.guggenheim-bilbao.es.webgunean](http://www.guggenheim-bilbao.es.webgunean).**

Bilbon, 2015eko martxoaren 23an